

Nazioarteko Online Ikastaroa


**“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK.
Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta
prozesu kolektiboak eraikitzen”**

2. edizioa

(2020-2021 Ikasturte akademikoa)

2021

Gida Didaktikoa – 7. Modulua



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Finantziatzaioa:



Miguel Espinosa (Tolimako Unibertsitatea)

Octavio Villa (Amazoniako Unibertsitatea)

Emérta Cuellar (Gernika Gogoratuz)

22-03-2021



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatutako eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

7. MUDULUA: Testuinguru kolonbiarra aztertu ondoren eskuratutako gakoak.
Kasuak: Cajamarca/Tolima eta El Doncello/Caquetá.

2

Moduluaren helburuak

1. Cajamarca eta El Doncello udalerrietan erauzketa-mehatxuen aurrean gizarte-sarea artikulatzea ahalbidetu zuten kategoria eta gako demokratikoei buruz hausnartzea.
2. Cajamarca eta El Doncello udalerrietan, baliabide naturalen erauzketa-prozesuei aurre egiteko eta lurraldeetan abiatutako beste megaproiektu batzuen eragina arintzeko gizarte-erakundeek sortu zituzten erresistentzia-moduak aztertzea (AngloGold-Ashanti [AGA] transnazionala eta urre-erauzketa; eta Emerald Energy, Canacol eta Ecopetro erakundeak eta petrolio-erauzketa).
3. Cajamarca eta El Doncello udalerrietako testuinguruetan identifikatutako botere-harremanei buruzko azterketa eta eztabaida bultzatzen duten tresnak eskaintzea, gaur egun sektore alternatiboetako gobernuekin.

Moduluaren sintesia

Modulu honetan jasota daude Cajamarca (I. eta II. faseak) eta El Doncello (I. eta II. faseak) udalerrietan aztertutako kasuen hainbat gako. Lehenengo faseetan, genero ikuspegian oinarritutako Gizarte-kartografiaren metodologia aplikatu duten mapaketa-tailerrak egin dira; eta bigarrenetan, Cajamarcan, prozesuen bide-laguntza eskaini da eta bizitzaren jasangarritasunari buruzko narratibak finkatu dira.

Honela artikulatuta dago: 1) Udalerrri bakoitzari buruzko sarrera, historia eta kokapena; 2) Testuinguruaren azalpena, multinazionalen presentzia eta gizarte-erresistentzia moduak jorratzea; 3) Prozesua ixtea, bidea jarraitu ahal izateko, ondorioak eta etorkizunerako hainbat egiteko planteatuta. Azken atalean, edukiak zabaltzen lagun dezaketen zenbait erreferentzia bibliografiko eskaintzen dira.



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

7. MUDULUA: Testuinguru kolonbiarra aztertu ondoren eskuratutako gakoak.
Kasuak: Cajamarca/Tolima eta El Doncello/Caquetá.

3

Kolonbiako bi udalerri aukeratu dira: Cajamarca (Tolima departamentua) eta El Doncello (Caquetá departamendua). Moduluaren helburua da horietan enpresa transnazionalen presentziak duen eragina aztertzea, bertako prozesuei bide-laguntza ematea eta bizitzaren jasangarritasunari buruzko narratibak finkatzea. Kokapen estrategikoetan dauden lurralde bi dira aipatutakoak, biodibertsitatean aberatsak eta gatazka soziopolitiko ugarikoak. Hala eta guztiz ere, eta dena kontra izan arren, gizonek eta emakumeek lortu egin dute antolatzea eta, horrela, kapitalismoaren erasoei aurre egitea. El Doncello udalerrian hasierako irudi bat hautatu da, zeinak aukera eman baitu testuinguru horretan dauden gatazkak ezagutzeko, aztertzeke eta ikusarazteko. Cajamarcan, oster, Gatazka egoeran dauden lurraldeak proiektuaren lehenengo faseak aukera eman du II. Fasera igarotzeko; izan ere, lurraldea astintzen duten bestelako mehatxuak azalerratu dira horrela, zeintzuek nazio mailako zein atzerriko inbertsio handiak ezkututzen baitituzte (hala nola, nazio interesa duten bide-megaproiektuak eta *hass* ahuakatearen hazkuntzari dagokion nekazaritza-negozioaren txertatzea). Hori guztia kontuan hartuta, bertako biztanleen egoera inoiz baino konplexuagoa eta zalantzagarriagoa da orain, eta agerikoa da, gainera, lurraldeak ere baduela bere autonomia eta eskubideak galtzeko arriskua.

Udalerrien testuinguruak ezagutzea:

Cajamarca: komunitate indigenek eta, ondoren, mestizoek populatutako eskualdea da, historikoki lurrari lotuta egon dena, besteak beste, Kolonbiako Andeatako erdiguneko eskualdeetako biztanleen kolonizazioaren ondorioz. Udalerriaren kokapen geostrategikoak (herrialdearen erdigunean dago, Magdalena-Yuma ibaiaren aranean) izar hidriko izaera ematen dio eta «Kolonbiako nekazaritza-despentsa» bilakatzen du, lurralde osoan kontsumitzen diren elikagaien zati handi bat bertan hornitzen delako.

El Doncello: ekialdeko mendikatearen parean, planetako ur-lantegi garrantzitsuenetako bat da, eta Estatuak zuzendutako kolonizazio-



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

7. MUDULUA: Testuinguru kolonbiarra aztertu ondoren eskuratutako gakoak.
Kasuak: Cajamarca/Tolima eta El Doncello/Caquetá.

4

planen bitartez populatu zuten, Kolonbian 50eko hamarkadan ezartzen zen alderdi biko indarkeriaren kontrako politika erreaktiboaren ondorioz, herrialdearen erdigunea «baketze» aldera. Politika haren helburua izan zen, halaber, 70eko hamarkadan koka laborantzak ezarri eta zabaltzeak eragindako kolonizazioari aurre egitea. Horrek guztiak agerian uzten du eskualdearen kolonizazioaren helburua beti izan dela bertako lehengaiak (flora -kina, kautxua eta zurgaiak- eta fauna -larruak zein animalia basatiak) erauztea eta erabiltzea. Hori horrela, flora naturala nekazaritza-lurzorua eta, ondoren, abeltzaintzarako eremu bilakatu da, eta azken hiru hamarkadetan, koka-abeltzaintza binomioak, hau da, interes ezberdinen menpeko ustiaketak, zehaztu du bertako ekonomia.

Aipatutako alderdi guztiak funtsezko gakoak dira Cajamarca eta El Doncello udalerrietako gizarte-talde gehienek (historikoki gehien baztertu diren horiek bereziki) garatu duten erresistentzia baketsu-sortzailea ulertzeko, baita erresistentzia horren dinamika, artikulazio eta sendotzea ulertzeko eta aztertze ere. Horren adibide garbia dira emakumeak, zeinak rol garrantzitsua izan baitute transnazionalen presentziak planteatzen dituen arazo eta erronken aurrean, bereziki, mobilizazio-uneetan. Izan ere, naturaren eta bizitzaren jasangarritasunarekiko konpromiso irmoa agertu dute arlo pribatuan. Hala eta guztiz ere, gehienetan ikusezinak izan dira espazio publikoan eta erabakiak hartzeko prozesuetan, historikoki pairatu duten diskriminazio-jazarpen-esplotazioaren ondorioz. Hala, diskriminazio-modu guztiak era naturalean zeharkatzen dira beren bizitzetan, mota honetako gizarte-mugimenduetan ere jazarpena normalizatuta.

Hori guztia aztertuta, nekazarien erresistentzia ulertzea lortuko dugu:

Cajamarca udalerrian, AGA urre-meatze multinazionalaren presentzia (munduko hirugarrena, Londres zein New Yorken burtsa-kotizazio handikoa) Kolonbian finkatzea eragin zuten Juan Manuel Santos eta Álvaro Uriberen gobernuak eskaintako eskala handiko «Meatze-lokomotora» deritzonaren erauzketa-ereduetan oinarritutako politikek. Izan ere, presidente horiei esker bilakatu zen AGA herrialdean meatze-



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

7. MUDULUA: Testuinguru kolonbiarra aztertu ondoren eskuratutako gakoak.
Kasuak: Cajamarca/Tolima eta El Doncello/Caquetá.

titulurik gehien zituen enpresa, nazioko lurrik aberatsenetan aire zabaleko meatzaritza praktikatzeko eskubide eskusiboen jabe bakarra.

5

El Doncello udalerrian, oster, Álvaro Uribe eta Juan Manuel Santosen gobernuek eskainitako eskala handiko «Energia-lokomotora» deritzonaren erauzketa-ereduetan oinarritutako politikek eragin zuten Emerald Energy, Canacol eta Ecopetrol petrolio-enpresak udalerrian finkatzea. Kasu horretan, FAR-EP (Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak-Herriaren Armada) eta Juan Manuel Santosen gobernuaren arteko bake-negoiazioek iraun bitartean sartu ziren petrolio-enpresak Caquetá departamenduan, eta lehenengo fasea gauzatu zuten, «Ustiapen sismikoa». Horrek eragin zuen goi-lautadako 32 bidezidorretako zazpi mila nekazari baino gehiagoren erresistentzia-mugimendua, Maguaréko polizia-ikuskaritzaren jurisdikzioetan. Erresistentziak 3 hilabete iraun zuen, eta gero aldameneko El Paujil udalerrira lekualdatu zen, bertan mobilizazioak areagotuta eta istiluen kontrako poliziarekin istiluak eraginda.

Datu horiek guztiek aukera ematen dute ahalduntzearen jatorria kontzientzia kritikoz hausnartzeko, eta Cajamarca zein El Doncello udalerrietako biztanleen diskurtso-ekintza eta bizitza-eredua ingurumenaren zein justizia sozialaren alde egokitze.

Udalerri horietan sortutako ingurumen-gatazkek agerian uzten dute nola jokutzen duen eredu hegemoniko kapitalistak: heteropatriarkala, antropozentrikoa eta androzentrikoa da, eragile zentralak eta enpresa transnazionalak protagonista direla. Beraz, aldi berean paisaia, ekosistema eta biodibertsitate diren espazio gisa ulertu behar dira eskualdeok. Borrokan daude eremu horiek eta eragile sozial, proposamen, interes eta ikuspegi ezberdinak biltzen dira bertan. Komunitateak antolatu egiten dira eta garapenaren alternatibak gauzatzen dituzte; hau da, erresistentzia-proiektuak abiatzeaz gain, erresistentzia sortzailea, berritzailea eta baketsua egiteko beste eredu eta modu batzuk eraikitzen dituzte era kolektiboan: hala nola «Inauteri martxa» Cajarmarcan, edota eskualdeko sendabelarrak (infusio edo



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatutako eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

7. MUDULUA: Testuinguru kolonbiarra aztertu ondoren eskuratutako gakoak.
Kasuak: Cajamarca/Tolima eta El Doncello/Caquetá.

aroma natural gisa kontsumitzeko) erein, eraldatu eta merkaturatzen dituzten emakume landatarren ekimenak El Doncellon (ASMUECH - Asociación de Mujeres Empoderadas Cimientos del Hogar).

6

Gainera:

Cajamarcan, 2017ko herri-kontsultaren garaipenak jarduera etetera behartu zuen AGA, baina ez dio uko egin lurraldetik alde egiteari eta udalerrian presentzia izaten jarraitzen du. Hala, AGA itzultzeko ezkutuko mehatxuak kezka sortzen du, baina lurraldea isilpean eta oldarka astintzen duten bestelako mehatxuak eztabaidatzeko bidea ere eman du. Alde batetik, Caracas-Bogota-Buenaventura galtzada bikoitza eraikitzeke lanak daude, Ibagué-Armenia tartean eta Cajamarcatik igarotzen den puntuan. Bestetik, AGAren iritsiera publikoarekin batera hasi zen Hass ahuakatearen laborantza dago, zeina, hasieran inbertsio txikia izanda ere, nabarmen hazi baita, neurri batean, transnazionalen eta udal- zein departamentu-administrazioen babesa jaso duelako. Azken urtean kanpo-inbertsiogileek ehunka hektareetako finkak erosteko baimena jaso dute, eta agerian geratu da inbertsiogile handiagoek ere (nazionalak zein atzerrikoek -mexikarrak eta txiletarrak-) badutela lurra eskuratzeko interesa, nekazaritza-negozio berari ekiteko.

Horrela, mehatxu batek baino (AHA), hiru mehatxuk kezkatzen dituzte Cajamarcako gizarte-mugimendua eta gizarte-erakundeak. Hori dela eta, beharrezkoa da Gatazka egoeran dauden lurraldeen ekipoaren bide-laguntza (II. Fasea), zeinak erresistentzia-sozialen jasangarritasuna babesten baitu nekazari-herrien lurraldeetan kapitalak muturra sartzen duenean.

El Doncello udalerriaren egungo testuinguruari erreparatuta, azpimarratzekoa da Estatu kolonbiarrak urratu egin duela Bogotako Teatro Colón antzokian gatazka armatua amaitutzat emateko sinatutako ituna, bereziki honako puntu hauei dagokienean: Landa-arloko Garapen Integrala eta lur-banaketa; bidegabe erabilitako laborantzak ordezte; gizarte-erakundeak eta biktimen ordezkartza



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

7. MUDULUA: Testuinguru kolonbiarra aztertu ondoren eskuratutako gakoak.
Kasuak: Cajamarca/Tolima eta El Doncello/Caquetá.

7

politikoa Errepublikako Kongresuan; nazio mailan gizarte, ingurumen zein Giza Eskubideen arloko erakundeetako buruzagien kontra piztutako indarkeria; protesta sozialaren kontrako errepresio armatua; indar publikoaren erabilera neurrigabearen bidez herriak menpean hartzea; Gatazka armatua amaitutzat emateko ituna sinatu duten gudari ohien hilketa eta merkatarien zigorrak; ... Gainera, nazio, eskualde zein tokiko mailako gatazken egiturak etengabeko gatazka-egoeran sustatzen dute, gatazka-ondoko garaia ahalbidetu beharrean. Hala eta guztiz ere, egoera horrek guztiak ez du enpresa hidroelektrikoek, petrolio-enpresek edota meatze-enpresek Amazonia kolonbiarreko baliabide naturalen erauzketa-jarduera eteterik eragiten, nahiz eta argi eduki eskualde osoa dagoela emakidapean. Besteak beste, Caquetá departamenduan, ingurumen-lizentzien agentzia nazionalak (ANLA) meatzaritza-ustiapenerako 49 meatze-titulu igorri ditu; departamentuko landa-ingurua partzelatu egin zuten, 43 petrolio-bloketan; eta, Amazoniaren gaineko asmo negargarri hori osatzeko, hamahiru enpresa hidroelektriko eraikitzeko ingurumen-lizentziak eman dira. Hori gutxi balitz bezala, El Doncello udalerrian, ECOPETROL eta FUPAD garapenerako fundazio panamerikarrak gizarte-inbertsioko jarduerak aurreratzen dituzte, gizarte-zein produktu-erakundeak kooptatuz eta nekazaritza-industriaren eraldaketarako proiektu produktiboak finantzatuz.

Egoera konplexu horrek indarkeria- eta gerra-eragileak sendotzea eragin du berriro, Caquetá, Putumayo eta Amazonas departamentuetan eragile armatuek berriro lurralde-kontrolak egiteraino. Hala, kontrol-eragilearen aurretiko baimena behar da horietan sartzeko; FARCen disidentziak direlakoak sendotu egiten dira eta paramilitarrek mehatxatu eta hil egiten dituzte gizarte-erakundeetako buruak; narkotrafiko-mafiak legerik gabe larreratzen dira botere eta justiziarik gabeko Estatuan; eta Indar Militarrek zakar jotzen dute erresistentzia zibil ororen kontra. Adibide gisa, El Doncello udalerriko 13 zinegotziak heriotza-mehatxupearan egon dira.

Nabarmentzekoa da El Doncello Udalerriko nekazariak etena zutela beren borroka; horregatik iruditu zaie erresistentzia-mugimendua berriro



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

7. MUDULUA: Testuinguru kolonbiarra aztertu ondoren eskuratutako gakoak.
Kasuak: Cajamarca/Tolima eta El Doncello/Caquetá.

aktibatzeak aukera ona dela hau, Gatazka egoeran dauden lurraldeen proiektua.

Azaldutako guztia dela eta, modulu honek eutsi egiten dio udalerririk horietako komunitateek bizi duten errealitateari, eta berau ikusarazten eta aberasten saiatzen da, etikarik eta legerik gabeko kapitalaren gaineko azterketa sendotzeko eta hari aurre egiteko.

Ikasleen egitekoak

- i) Testua irakurtzea. Alderdirik interesgarrienei buruzko laburpena edo iruzkina egitea.
- ii) Galderak erantzutea.
- iii) Eztabaida-foroan parte hartzea.

Gutxi gorabeherako kronograma

Moduluak zazpi eguneko iraupena dauka; **martxoaren 22tik 28ra bitartekoa**, guztira sei ordukoa. Denbora librea izateko gaitasuna ezberdina izango da batzuen eta besteen artean, baina, orientazio gisara, denbora horrela banatzea proposatzen da, egunean ordubete eginez:

2021/3/22 Astelehena	2021/3/23 Asteartea	2021/3/24 Asteazkena	2021/3/25 Osteguna	2021/3/26 Ostirala	2021/3/27 Larunbata	2021/3/28 Igandea
- 7. gida didaktikoa irakurtzea. - 7. moduluko bideoak ikustea. - Testuaren	- Testuaren 2. zatia irakurtzea (Cajamar cako kasua). - Foroan	- Irakaslearekin zalantzak argitzea. - Foroan argitaratutako 1. galderan	- Foroan argitaratutako 1. galderan parte hartzea. - Testuaren 3. zatia irakurtzea	- Foroan 2. galdera argitaratzea: Zer alderdi gako identifikatzen dira AGAk Cajamarc	- Foroan 3. galdera argitaratzea: Zer beste mehatxuk astintzen du lurraldea mega-	- 7. moduluarri dagokion foroa ixtea. - Testa entregatzea.



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

7. MUDULUA: Testuinguru kolonbiarra aztertu ondoren eskuratutako gakoak.
Kasuak: Cajamarca/Tolima eta El Doncello/Caquetá.

1. zatia irakurtzea (Cajamarca kasua).	1. galdera argitaratzea: Nola jokatzeko dute kapital transnazi onalak eskuratutako tokiko botereak? Eta nola parte hartzen dute komunitateek horiek lurraldean egiten dituzten erasoaren aurrean?	parte hartzea.	(Cajamarca kasua).	a udalerrian izan duen eragina aztertzean? Eta zeintzuk El Doncello udalerrian petrolio-enpresaren presentzia izan duen eragina aztertzean?	meatzaritza eta hidrokarburuen erauzketa ez diren bestelako kapital-adierazpe presentziaren ondorioz?	
				- Testu erantzutea.	- Foroan argitaratutako 3. galderan parte hartzea.	
				- Foroan argitaratutako 2. galderan parte hartzea.		

9

Oinarri-testua gaztelaniaz (Cajamarca/Tolima)

<https://territoriolab.org/wp-content/uploads/2020/04/EC-Cajamarca-digital-ES.pdf>

Bibliografia osagarria

Lezio honekin lotutako hainbat kontutun sakontzeko:



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatutako eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

7. MUDULUA: Testuinguru kolonbiarra aztertu ondoren eskuratutako gakoak.
Kasuak: Cajamarca/Tolima eta El Doncello/Caquetá.

10

- ARIAS, Serna Diego (2020), «Oro, oro negro y oro verde, enemigos del agua». Hemen: <https://www.cronicadelquindio.com/noticia-completa-titulo-oro-oro-negro-y-oro-verde-enemigos-del-agua-nota-128352> (2020/09/24an berreskuratua).
- BEAUVOIR, Simone. (2017). «El segundo sexo. Feminismos». Madril.
- «Boletín impactos ambientales» 13-14 zk. (2013). Instituto Latinoamericano para una Sociedad y un Derecho Alternativos. Bogota DC.
- BOURDIEU, Pierre. (2000). «La dominación masculina». Anagrama argitaletxea. Bartzelona SA.
- Memoria historikoaren zentro nazionala (2016), «Tierras y conflictos rurales Historia, políticas agrarias y protagonistas». Bogota DC. Kolonbiako Inprenta Nazionala Gatazkaren Biktimen Batzorde Historikoa, 2015. «Contribución al entendimiento del conflicto armado en Colombia».
<http://www.centrodememoriahistorica.gov.co/descargas/comisionPaz2015/estradaJairo.pdf>
- (2017). «La tierra no basta. Colonización, baldíos, conflicto y organizaciones sociales en el Caquetá». CNMH, Bogotá.
- CIRO, Estefanía. (2018). «“Ni guerra que nos mate, ni paz que nos oprima”: incursión petrolera y defensa del agua durante las negociaciones y firma de la paz en el sur de Colombia». Zientzia Politikoen Saila eta Nazioarteko Ikasketen Zentroa. Gizarte Zientzien Fakultatea, Andeetako Unibertsitatea.
- (2016). «Resistencia a la política extractivista en el Caquetá: de Valparaíso a El Doncello y Paujil». A la Orilla del Río, maiatzaren 3koa. URL: [http://alaorilladelrio.com/2016/05/03/resistencia-a-la-politica-extracti vista-en-el-caqueta-de-valparaiso-a-doncello-y-paujil/](http://alaorilladelrio.com/2016/05/03/resistencia-a-la-politica-extracti-vista-en-el-caqueta-de-valparaiso-a-doncello-y-paujil/)
- ESPINOSA, M., CRUZ, F. CUÉLLAR, E. (2019). «Estudio de Caso: Cajamarca (Tolima, Colombia), resistencias sociales frente al poder trasnacional». Gernika Sarea. Gernika Gogoratuz. Gernika-Lumo.



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

7. MUDULUA: Testuinguru kolonbiarra aztertu ondoren eskuratutako gakoak.
Kasuak: Cajamarca/Tolima eta El Doncello/Caquetá.

11

- «Feminismos y cambio social en América Latina y el Caribe» / Magdalena Valdivieso [eta beste]; Alba Carosiok koordinatuta - 1. ed. – Buenos Aires hiri autonomoa: CLACSO, 2012.
- HERRERO, Yayo. (2018). «El ecofeminismo como herramienta de transformación». CTXT Contexto y Acción aldizkaria.
<https://ctxt.es/es/20180307/Politica/18195/ecofeminismo-herramienta-transformacion-mujeres.htm>
- JUBETO, Y., LARRAÑAGA, M., De Pinho, L. (2019). «Propuestas feministas por la despatriarcalización y descolonización de los territorios y a favor de la red de la vida». Gatazka egoeran dauden lurraldeak 3. Gernika Sarea. Gernika Gogoratuz.
- «LA COLOSA: Una muerte anunciada». [https://www.colombiasolidarity.org.uk/attachments/article/610/LA%20COLOSA Una%20Muerte%20Anunciada.pdf](https://www.colombiasolidarity.org.uk/attachments/article/610/LA%20COLOSA%20Una%20Muerte%20Anunciada.pdf)
- MELO, Fabio (2014). «Colonización y poblamiento del piedemonte amazónico en el Caquetá. El Doncello 198-1972». Honako maisutza-ikasketen titulua eskuratzeko tesina: Historia Magister-a. Pontificia Universidad Javeriana.
- PULEO, A., SEGURA, C. eta CAVANA, M.L. (2005).
- QUINTANA, Martha (2016), «Organización de los movimientos sociales frente a la minería a gran escala en Colombia: el caso de la red de comités del Tolima». Ekintza publiko eta garapen sozialeko maisutza-graduaren titulua eskuratzeko tesia. El Colegio de La Frontera. Ciudad Juárez, Chihuahua, Mexiko.
- SALAZAR, Carolina (2007), «ILRSA en Colombia. RUTAS PARA EL LIBRE COMERCIO». Hemen: http://www.ilsa.org.co/biblioteca/Portavoz/Portavoz_%2310/pv10-3.pdf (2020/10/16an berreskuratua).
- SÁNCHEZ, Diana. (2013). «Minería, territorio y territorialidad: el caso del hallazgo aurífero La Colosa en el municipio de Cajamarca (Tolima Colombia). 2000-2013». Honako titulu hau eskuratzeko baldintza partzial gisa aurkeztutako tesi edo ikerketa-lana: Geografia Magister-a



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

7. MUDULUA: Testuinguru kolonbiarra aztertu ondoren eskuratutako gakoak.
Kasuak: Cajamarca/Tolima eta El Doncello/Caquetá.

12

Kolonbiako Unibertsitate Nazionala. Giza Zientzien Fakultatea. Geografia Saila.

- TUTA, Ana María (2017), *«Extractivismo y movimientos sociales: la defensa del lugar como estrategia alternativa al desarrollo. Caso de estudio Cajamarca, Tolima»*. Garapen Jasangarrian eta Ingurumen Kudeaketan Magister titulua eskuratzeko tesia. Bogota DC. Kolonbia. Distrital Francisco José de Caldas Unibertsitatea.

- ULLOA, Astrid., CORONADO, Sergio. (2016). *«Extractivismo y posconflicto en Colombia: retos para la paz territorial»*. Bogota: Kolonbiako Unibertsitate Nazionala (Bogotako egoitza). Giza Zientzien Fakultatea. Geografia Saila; Centro de Investigación y Educación Popular Programa por la Paz.

- VANGUARDIA (2020), *«Queman palmas de cera en reserva forestal de Tolima»*. Hemen: <https://www.vanguardia.com/colombia/queman-palmas-de-cera-en-reserva-forestal-de-tolima-DH2548894> (2020ko ekainaren 27an berreskuratua - 3:00 PM).

Ikus-entzunezko material osagarria:

- *«Sin minería, la vida tiene futuro»*. Cajamarca udalerrian (Kolonbia) AngloGold Ashanti meatze-enpresa transnazionalaren kontra egindako erresistentzia baketsuari buruzko dokumentala. <https://youtu.be/MQTqkKrJ0Mo>

- *El aguacate - El lado oscuro del superalimento* (Chile). DW Documental: <https://youtu.be/IWqUSGJg1eU>